

Haur-eta gazte-literatura

 Vicens Vives



ESKANEATU

Eltzetxoa
Tantaia

Sartu Vicens Vivesen literaturan, eta aukeratu zure beharretara hobekien egokitzen den formatua

Paperean erosteko aukera



edubook

Eduboken erosteko aukera

Edozein gailutatik eskura daitezkeen 200 titulu baino gehiago.





Haur-eta gazte-literatura

Eltzetxoa eta Tantaia bildumek literatura-kalitateak, aurkezpen formal erakargarriak eta irudi ugarien bikaintasunak ezaugarritzen dituzten irakurgaiak biltzen dituzte. Sail batek zein besteak maila handiko egileen lana eskaintzen dute, bai itzulpen zainduetan, bai ardura handiz egindako egokitzapen ederretan ageri dena.

Eltzetxoa eta Tantaia bildumetan Oscar Wilde, A. Conan Doyle, David McKee, Daniel Defoe eta Charles Dickens tankerako idazleen kontakizunak argitaratzen dira, eta beren istorioen edertasunarekin hunkitzeaz gainera, gizakiaren nolakotasunari buruzko irakasgai jakingarriak ematen dizkigute.

Literatura-genero guztietako erakusgaiak aurki daitezkeen bilduma hauetan, bereziki nabarmentzen da solidarioak izateko eta nork bere buruan sinesten ikasteko premia: horra polizia-

kontakizunen misterioa eta suspensea, umorezko ipuinen komikotasuna eta freskotasuna, zientzia-fikzioaren mirariak, fantasmen istorioen izumena, animalien alegien asmamen zelebrea...

Bilduma hauek literaturaren funtsa osatzen duenaren gainean oinarritzen dira: arreta berezia ematen zaie hizkuntzari eta istorio liluragarriari, irakurle gazteen ikusmira zabal dezaten, beren burua ulertzen lagun diezaieten, beste bizitza batzuk biziaraz diezaieten, era horretan berena aldatu eta beste mundu batzuk aurkitzeko, beren mundua hobetzarren. Eltzetxoa eta Tantaia bildumek, oroz gain, irakurketaren plazera handitu eta irudimena eta fantasia nahi dituzte bultzatu. Baina, aldi berean, irakurritakoaren gaineko hausnarketa ere eragin nahi dute, neska-mutilen literatura-zaletasuna lantzen lagunduz eta hizkuntza-ondarea zabalduz.

Eltzetxoa bilduma

Eltzetxoa bilduma irakurtzen hasten ari diren neska-mutilentzat dago pentsatua. Hori dela-eta, testuak **zailtasunik gabeko hizkeran** daude idatziak, ez dira oso luzeak, eta letrak, berriz, neurri ederra du.

Irakurketa atseginagoa izan dadin, liburuak **irudi** asko dute, nazioarteko ospea duten artistek eginak.

Ale guztiek dute **jarduera-atal** bat, eta atal horren bidez irakurle gazteek honako hauek lortzea nahi da:

- ♦ Istorioaren ulerpena sendotzea.
- ♦ Liburuak dauzkan balioak bereganatzea.
- ♦ Kontakizunetik sortzen diren iradokizunetatik abiatuta, sorkuntza-ahalmena garatzea.

ALE GUZTIEK DAUKATE
GIDALIBURU DIDAKTIKO BAT



Hori bai: Sheilak lanak zituen sei aldiz afaltzeko. Zer uste duzue, aldi berean sei pertsonaren katua izatea erraza dela? Sheilak etxe bakoitzean ematen zioten izena gogoratu behar zuen, eta sei era desberdinez jokatu behar zuen.



Esaten bazioten Matxalen, saguen atzetik ibiltzen zen.

Koloretako irudi ugariak nazioarteko ospea duten irudigileek eginak dira.

Kontakizunaren ulerpena sendotzea da **jarduera** guztien xedea, eta, aldi berean, ludikoak dira.



Literatura-testua oso erraz irakur daitekeen letra batean emana dago.



Eltzetxoa bilduma

1. Sheila Sei Afari


Inga Moore

Irudiak: Inga Moore

Sheila katu bihurriak sei nagusi dauzka, sei etxetan bizi da eta egunero sei aldiz afaltzen du. Nagusi bakoitzak katua berea eta berea bakarrik duela uste du, eta, hala, Sheila primeran bizi da... egun batean katarroa harrapatu eta albaitaria trikimailuaz konturatzen den arte!

Balioak: adiskidetasuna, laguntasuna, iritzia, eskuzabaltasuna, irudimena, tolerantzia.

6 urtetik aurrera	Umorezko ipuina
40 orrialde	ISBN: 978-84-682-1646-1



2. Malkoen lapurra


Carol Ann Duffy

Irudiak: Nicoletta Ceccoli

Gauero-gauero, malkoen lapur ikusezinak zilar koloreko zaku bat hartzen du lepoan, haurren bat negarrez aditzen duen etxe guztietara joaten da, haurrei malkoak lapurtu eta bere zakuan sartzen ditu. Baina zer egiten du bere zaku ikusezinean pilatzen dituen malko guztiek? Eta zergatik miresten ditu, beste guztien gainetik, tristuraz negar egiten duten haurren malkoak?

Balioak: sormena, irudimena, erantzukizuna, solidaritatea.

6 urtetik aurrera	Ipuin fantastikoa
48 orrialde	ISBN: 978-84-682-1647-8



edubook

3. Pirata izan nintzenekoa

Melinda Long

Irudiak: David Shannon

Julian txikiak bere bizitzako abentura bizitzen du Txirikorda Bizarren piratek altxor bat lurperatzera laguntzeko eskatzen dioten egunean. Piraten itsasontzian, Julianek primeran pasatzen du: itsaslapurren hizkera zelebrea ikasten du, haien manera zakarrak imitatzen ditu, eta nahi duena besterik ez du jaten, inork errietarik egin gabe.

Balioak: adiskidetasuna, laguntasuna, konfiantza, sormena, iritzia, aniztasuna, adorea.

6 urtetik aurrera	Abentura-ipuina
48 orrialde	ISBN: 978-84-682-1650-8



edubook

4. Konkistatzaileak


David McKee

Irudiak: David McKee

Mundu erdia konkistatu ondoren, herrialde ahaltsu bateko Jeneralak herrialde txiki batez jabetzea erabaki du. Jeneralaren osteek herrialde hura inbaditzen dutenean ordea, herritarrek beren etxeetara gonbidatzen dituzte soldaduak eta beren ohiturak erakusten dizkiete. Handik aurrera, dena aldatuko da konkistatzaileen herrian... Ipuin hau belizismoaren kontrako eta anaitasunaren aldeko alegatu bat da.

Balioak: adiskidetasuna, iritzia, laguntasuna, aniztasuna, eskuzabaltasuna, irudimena, justizia, erantzukizuna, tolerantzia, adorea.

6 urtetik aurrera	Ipuin moralak
40 orrialde	ISBN: 978-84-682-1648-5



edubook

5. Sakela magikoa


Roberto Piumini

Irudiak: Anna Laura Cantone

Ipuinotan pirata bihotz-zabal baten eta gaizki hazitako printze baten istorioa jakingo dugu, bere nagusia ernegatzen daukaten bi oinena eta hegan egin nahi zuen asmalari xaloarena... Ipuin batzuk prosan kontatzen dira eta beste batzuk bertotan, batzuk umorezkoak dira eta besteak miragarriak... Baina gauza bat partekatzen dute denek, balio moralen defentsa: guztiak dira eskuzabaltasunaren, esker onaren, elkartasunaren, tolerantziaren eta dibertsitatearen aldekoak.

Balioak: laguntasuna, konfiantza, jarraikitasuna, sormena, iritzia, aniztasuna, eskuzabaltasuna, irudimena, justizia, ingurumena, solidaritatea, erantzukizuna, tolerantzia, adorea.

8 urtetik aurrera	Ipuin moralak
112 orrialde	ISBN: 978-84-682-1649-2



6. Mamuen Gabon-gaua

Charles Dickens


Egokitzapena: José María Pérez Zúñiga

Irudiak: Patrick Benson

Ebenezer Scrooge zaharra erremediorik ez duen agure berekoi bat da, bere enplegatua esplotatzen duena eta besterengan sekula pentsatzen ez duena. Baina Gabon-gau batean zenbait fantasma agertzen zaizkio, mundua bere laguntzaren eta maitasunaren premiaz dauden pertsonen bete dagoela jakinaraziz... eta betiko aldatuko da agure zikoitzaren bihotza.

Balioak: adiskidetasuna, konfiantza, jarraikitasuna, sormena, eskuzabaltasuna, irudimena, justizia, erantzukizuna, solidaritatea.

8 urtetik aurrera	Kontakizun fantastikoa
80 orrialde	ISBN: 978-84-682-1651-5



7. Ilargiaren estaltzailea

Éric Puybaret

Irudiak: Éric Puybaret

Nino oso suerte oneko mutila da. Ilargiaren estaltzailea izendatu berri dute. Aurrerantzean, gauero-gauero ilargiaren parte bat estali beharko du, guk txikitzen eta handitzen ikus dezagun. Zoritxarrez, azkeneko unean, bere lantokira hegan iristen laguntzen dion pastilla txikia galtzen du Ninok! Herriko bizilagunek lagundu egingo diotela erabakitzen dute, eta modu horretan ezer ez dela ezinezkoa gertatzen erakutsiko digute, baldin taldean lan egiten badugu.

Balioak: adiskidetasuna, laguntasuna, konfiantza, jarraikitasuna, sormena, eskuzabaltasuna, irudimena, erantzukizuna, solidaritatea.

8 urtetik aurrera	Ipuin fantastikoa eta solidarioa
48 orrialde	ISBN: 978-84-682-1652-2



8. Xalba koartza eta Euxebi azeri

Laurence Tichit

Irudiak: Éric Puybaret

Xalba koartza eta Euxebi azeri bizilagunak dira, baina ez lagunak. Harritzekoa ere ez da, hain desberdinak dira! Sukaldean aritzea, baratzea zaintzea eta igerilekuan bainatzea gustatzen zaio Euxebiri; Xalbari, berriz, ura ez zaio gustatzen, zorutzen ibiltzen da zabuan eta sukalea ezin du ikusi. Egia da, Xalba eta Euxebi oso desberdinak dira lagunak izateko... Edo beraiek hala diote behintzat...

Balioak: adiskidetasuna, laguntasuna, iritzia, aniztasuna, eskuzabaltasuna, tolerantzia.

6 urtetik aurrera	Elezaharra
40 orrialde	ISBN: 978-84-682-1653-9



9. Ez dut irakurri nahi!


Rita Marshall

Irudiak: Etienne Delessert

Xabier Agirrerri ez zaio irakurtzea gustatzen, eta inork ezin dio sinetsarazi irakurtzea gauza dibertigarria denik. Baina egun batean, gogo txarrez, liburu bat zabaltzen du, eta non aurkitzen duen bertako orrietan idatziak dauden hitzek mundu zoragarri bat gordetzen dutela... eta mundu horrek bizitza hartzen du Xabierren begi harrituen aurrean. Abenturek eta pertsonaia fantastikoei hainbestearino liluratzen dute, non harrezkero inork ez baitu lortzen... Xabierrek liburua uztea.

Balioak: sormena, irudimena, erantzukizuna.

6 urtetik aurrera	Ipuin fantastikoa
48 orrialde	ISBN: 978-84-682-0418-5



Tantaia bilduma

ALE GUZTIEK DAUKATE
GIDALIBURU DIDAKTIKO BAT



Testu literarioa oso erraz irakur daitekeen letra batean emana dago.

Koloretako **irudi** ugariak nazioartean ospetsu diren irudigileek eginak dira.

Oharrak oso modu argi eta errazean daude adieraziak.

Jarduerak irakurketaren osagarri gisa eskaintzen dira, eta hiru ataletan egituratuak daude:

- ♦ «Ulerpena» edo «Argumentua» atalean, ekintza aurrera daramaten gertaerak edo egoera nagusiak berrikusten dira.
- ♦ «Iruzkina» eta «Adierazpena» ataletan, obraren azaleko ulerpene gainditu nahi da, eta, irakurketa bakoitzari dagokion adinaren arabera, hausnarketa egiten da pertsonaiez, gaiez, balio etikoez, etab.
- ♦ «Sorkuntza» eta «Adierazpena» ataletan, obraren inguruko jarduera sortzaileak proposatzen dira, nola diren: testu idatziak osatzea, debateak, eztabaidak eta antzezpenak egitea, etab.

Ale guztiek daukate **gidaliburu didaktiko** bat.

Argumentua

- 1 Nolakoa da Ibar Logaletua izeneko bertako herriarrak? Zer da Zaldun (48. or.)
- 2 Bai herriko maisua, bai Brom Bones, van Tasselez maitemindua daude dio Ichabodi zuzenean eraso egiten mek Ichabodi? (50. or.)
- 3 Egun batean, Katrinaren etxean a ten da Ichabod, eta harekin dant Zein da elkarriketa-gai nagusia istorio kontatzen du Bromek? (51. or.)
- 4 Ichabod bakarrik abiatzen da be irudimen handiegia du ordea. Z goen zuhaitz handi-handi bat? jokutzen du Ichabodek zaldi bel ren zaldunaren aurrean? Zer eg du Ichabodek konturatzen denean bere lagun mutuak burua falta duela? Zer bota- tzen dio zaldunak Ichabodi, uste du maisuak bota diotela (54. eta 56. or.)

Jarduerak hiru sailetan zatituak daude, eta irakurketari probetxurik handiena ateratzen dion gida erraza eta entretenigarria dira.

ibarr Logaletuaren

Iruzkina

- 1 Ichabod Crane maisua oso pertsonaia bitxia da. Sorginen eta fantasmen istorioak kontatzea gustatzen bazaio ere, harrizkoak da, baina beldur handia ematen dio herritik gertu dagoen basoa gurutzatu behar duenean? (49. or.) Nola sailatzen da ikara kentzen?
- 2 Bromek, bere maitasunaren arerioa gainetik kentzeko, azken broma egitea erabakitzen du. Zergatik uste duzu kontatzen duela Bromek festan Zaldun Burugabeari buruzko istorioa? Zein da egiatan Ichabodi atzetik segitzen dion zalduna?
- 3 Brom Bones azkenean Katrina van Tasselekin ezkontzen da. Zergatik egiten du Bromek barre jendeak inon ageri ez den Ichaboden berri galdetzen duenean? Zer dakit Bromek gai horri buruz? Zuk uste duzu Ichabodek halako ikara handia eta halako irudimen mugagabea ez balitu, ihes egingo zuela herritik? Egokia iruditzen zaizu Bromek egiten duena Katrinaren maitasuna lortzeko?



Adierazpena

- 1 Ipuinean, Ichabod (49. or.), Katrina van Tassel (50. or.) eta Brom Bones (50. or.) pertsonaien erretratuak egiten dira. Erretratu batean, pertsonaia baten fisikoa eta izaera deskribatzen ditu egileak. Nolako da pertsonaia horietako bakoitza? Konpara itzazu hiru erretratuak, eta esan ezazu zertan diren antzekoak eta zertan desberdinak.
- 2 Ichaboden deskribapenari **karikatura** esaten zaio, pertsonaia horren itxura fisikorekin ezaugarriak —irudimena eta beldurra besteak beste— esajeratzen eta barregarri uzten dituelako. Zer

91



Literatura-testua oso erraz irakur daitekeen letra batean emana dago.

Erraldoi berekoia



Arratsaldero, eskolatik etxeratzen, haurrak Erraldoiaren lorategira joaten ziren jolastera.

Lorategi ederra zen, oso polita, belar berde leunez estalia. Belar eta hamabi mertxikondo, udaberrian perla-tonuko lore fin arrotzaitetako txoriek hain goxo aritzen ziren txioka, non haurrak jolasteari utzi eta entzuten geratzen baitziren.

—Zein ongi pasatzen dugun hemen! —esaten zioten batak besteari.

Egun batean Erraldoia itzuli egin zen. Bere lagun bat bisitatzen izan zen, Kornubia¹ aldeko Ogroa, eta zazpi urte geratu zen haren etxean. Zazpi urteak amaitzen esan behar zuen guztia esan baki zuen. Iritsi zenean haurrak ikusi zituen lorategian jolasten. —Zertan ari zarete hemen? —oihukatu zien doinu haserre, eta haurrek alde egin zuten korrika.

¹ Kornubia: Ingalaterrako hego-mendebaleko eskualdea, Kornualles ere esaten zaio.

7

Koloretako irudi **ugariak** nazioartean ospetsu diren irudigileek eginak dira.

Oharrak oso modu argi eta errazean daude adieraziak.

1. Ametsen ahotsa eta beste ipuin miragarri batzuk

Hugh Lupton

Irudiak: Niamh Sharkey

Nola izan liteke itsu batek ehiztari batek baino hobeto ikustea? Litekeena al da euriarekin opilak botatzea eta arrainak basoko belarretan igeri ibiltzea? Liburu honetako istorio liluragarriek gauza interesgarriak jakinarazten dizkigute: pertsona zuhurgabeek arazoak ekar ditzaketela, ametsen sinestea ez dela beti gauza burugabea, eta pertsonarik jakintsuena buruko begiekin ikusten duena dela... eta bihotzeko begiekin ikusten duena.

Balioak: adiskidetasuna, konfiantza, jarraikitasuna, sormena, iritzia, aniztasuna, eskuzabaltasuna, zintzotasuna, irudimena, ingurumena, erantzukizuna, solidaritatea, tolerantzia.

8 urtetik aurrera	Ipuin fantastikoak
80 orrialde	ISBN: 978-84-682-1575-4



2. Erraldoi berekoia eta beste ipuin batzuk

Oscar Wilde

Irudiak: P. J. Lynch

Liburu honetan daude bilduak Oscar Wilderen ipuinik ederrenak eta hunkigarrienak, balio moral nagusiak ageri dituzten kontakizunak. Ipuinotako protagonistek, berekoitasunari uko eginez, atseginak eta eskuzabalak direnean eta gainerakoengatik arduratzen direnean eskuratzen dute zoriona eta maitasuna.

Balioak: adiskidetasuna, konfiantza, sormena, eskuzabaltasuna, zintzotasuna, erantzukizuna, solidaritatea.

9 urtetik aurrera	Ipuin moralak eta fantasiazkoak
104 orrialde	ISBN: 978-84-682-1645-4



3. Esoporen alegiak


Jerry Pinkney

Irudiak: Jerry Pinkney

Liburu eder honetan Esoporen hirurogei elezahar hautatu dira. Bai generoa bai egilea etengabe imitatu dira. Ez da harritzekoa sekula ez galtzea ospe hori, kontakizun bakoitzak amairik gabeko sorpresak eskaintzen baitizkigu: errotari batek eta bere semeak asto bat bizkarrean eramatea erabakitzen dute, otso bat ardi-larruarekin moztarotzen da, antzara batek urrezko arrautzak jartzen ditu, dortoka batek lasterketa batean erbi bati irabazten dio...

Balioak: adiskidetasuna, laguntasuna, konfiantza, jarraikitasuna, iritzia, eskuzabaltasuna, zintzotasuna, irudimena, justizia, erantzukizuna, solidaritatea.

9 urtetik aurrera	Ipuin moralak eta elezaharrak
128 orrialde	ISBN: 978-84-682-1654-6



4. Gabon-kanta

Charles Dickens


Egokitzapena: Pablo Antón Pascual

Irudiak: Christian Birmingham

Ebenezer Scrooge zekenari lau mamu agertzen zaizkio gau batean, bere jokamoldean pentsarazi eta, bere berekoikerian setatzen baldin bada, oso etorkizun beltza izango duela jakinarazten diotenak. Kontakizun samur honekin, Dickensek bere irakurleen kontzientziei eragin nahi izan zien, eta konbentzitu bihotz onekoak behar zutela izan eta karitatez jokatu gure mundu bidegabe honetan.

Balioak: adiskidetasuna, konfiantza, jarraikitasuna, eskuzabaltasuna, irudimena, justizia, erantzukizuna, solidaritatea.

11 urtetik aurrera	Kontakizun moralak
112 orrialde	ISBN: 978-84-682-1640-9



5. Greziar mitoak

Maria Angelidou


Egokitzapena: **Miguel Tristán**

Irudiak: **Svetlin**

Mitologiaren magia eta edertasuna osorik ageri dira islatuak bizitasun xarmagarri berridatzi diren bilduma honetako hamaika mito grekoetan. Liburu honetan kontatzen dira, beste istorioen artean, nola borrokatu zen Teseo Minotauroaren kontra, Pandoraren kutxaren elezaharra, Ikaroren zoritxarreko hegaldia, Orfeok infernura egin zuen bidaia eta Ulisesek Troiako gerra amaitzeko erabili zuen egurrezko zaldiaren maltzurkeria.

Balioak: konfiantza, jarraikitasuna, sormena, iritzia, eskuzabaltasuna, irudimena, justizia, erantzukizuna, solidaritatea, adorea.

11 urtetik aurrera	Kontakizun mitologikoak
128 orrialde	ISBN: 978-84-682-1621-8



GAZTE LITERATURAKO
«VITORIA-GASTEIZ»
ITZULPEN SARIA

6. Isatsetik tiraka


Mary Hoffman

Irudiak: **Jan Ormerod**

Zer gertatzen da otso tripaundi batek ardirik potzoloena jan nahi duenean? Eta azeri bat, oso bizkorra dela esanez, karramarro baten aurrean harrokerian dabilenean? Liburu honetan hamaika istorio atsegin ageri dira, bizi-biziak, eta bertan irakurleak deskubrituko du, batek argiustearena egiten baldin badu, zikoitza baldin bada edo ahoberokerian jarduten baldin badu, oso akabera txarra izan dezakeela.

Balioak: adiskidetasuna, konfiantza, sormena, iritzia, aniztasuna, eskuzabaltasuna, irudimena, erantzukizuna, adorea.

8 urtetik aurrera	Elezaharrak eta animalien ipuinak
112 orrialde	ISBN: 978-84-682-1655-3



7. Detektibe-ikaslea Lapurreta garesti bat

William Irish

Irudiak: **Rubén Pellejero**

Intrigak, emozioak eta suspenseak hasieratik bukaera arte harrapatzen dute irakurlea bi polizia-kontakizun bikainotan. Aurrenekoan egiazko «detektibe-ikasle» baten abentura biziko dugu. *Lapurreta garesti bat* istorioaren umore beltzak, aldiz, bukaera izugarria izango du.

Balioak: adiskidetasuna, laguntasuna, jarraikitasuna, iritzia, zintzotasuna, justizia, erantzukizuna, adorea.

10 urtetik aurrera	Misterioa eta umore beltza
128 orrialde	ISBN: 978-84-682-1656-0



8. Fantasmekontakizunak


Steven Zorn

Irudiak: **John Bradley**

Itsasontzi bateko bidaiari bat hildako bizidun baten gela berean sartu dute... Umezurtz txiki batek bizitza salbatu nahi dioten bi haur-fantasmek bisita hartzen du... Sar zaitez beldurrik gabe liburu honetako zortzi ipuinen mundu misteriotsu eta fantastikoan. Sorpresa bat izango duzu zain liburuko txoko bakoitzean.

Balioak: sormena, iritzia, irudimena, solidaritatea, adorea.

9 urtetik aurrera	Misterioa, izua eta umorea
96 orrialde	ISBN: 978-84-682-1542-6



9. Oliver Twist

Charles Dickens


Egokitzapena: **Pablo Antón Pascual**

Irudiak: **Christian Birmingham**

Nobela hunkigarri honek Oliver Twisten zorigaitzak kontatzen ditu. Oliver Twist eskaleen umezurtzegi batean hazi da, eta sekulako ezbeharrak pairatu beharko ditu, ezer ere jakin gabe, lapur talde batekin elkartzen denean. Intriga eta misterioa trebetasun handiz erabiliz, maitasunak bakarrik gaindi dezakeen giza sen gaiztoak ulertzen ez duen gizarte baten erretratu satirikoa egiten du Dickensek.

Balioak: adiskidetasuna, laguntasuna, konfiantza, jarraikitasuna, iritzia, eskuzabaltasuna, zintzotasuna, justizia, erantzukizuna, solidaritatea, adorea.

11 urtetik aurrera	Nobela errealista
168 orrialde	ISBN: 978-84-682-1657-7



10. Dantzarien misterioa Zilar Izar


Arthur Conan Doyle
Irudiak: Tha

Sherlock Holmesen behaketarako ahalmena eta dedukzioarako talentua ezin distiratsuago ageri dira bi kontakizun liluragarriotan.

Dantzarien misterioa istorioan, detektibe famatuak hilketa harrigarri baten egilea aurkitzen du, bere talentu handiarekin kriptograma bat deszifratzea lortzen baitu, eta *Zilar Izar* izenekoan, berriz, Holmesek osorik baliatu behar du bere asmamena, ustezko erruduna akusatzen duten frogak baztertu eta egiazko hiltzailea aurkitzeko.

Balioak: adiskidetasuna, laguntasuna, konfiantza, jarraikitasuna, sormena, iritzia, zintzotasuna, irudimena, justizia, erantzukizuna, solidaritatea, adorea.

10 urtetik aurrera	Polizia-kontalizunak
128 orrialde	ISBN: 978-84-682-1658-4




11. Robinson Crusoe

Daniel Defoe
Egokitzapena: Eduardo Alonso
Irudiak: Robert Ingpen

Handinahiak eta abentura-grinak menderaturik, Robinson Crusoe gazteak gurasoen etxea utzi du, eta, abentura arriskutsu eta zoritxar asko bizi izan ondoren, itsasontzia urperatuta, uharte jendegabe batera heldu da. Uhartean, bizirik irauteko eta izadi latz bat mendean hartu ahal izateko, ondo zorroztu beharko ditu Crusoeek asmamena eta irudimena.

Balioak: adiskidetasuna, konfiantza, jarraikitasuna, sormena, iritzia, eskuzabaltasuna, zintzotasuna, tolerantzia, adorea.

11 urtetik aurrera	Abentura-nobela
144 orrialde	ISBN: 978-84-682-1659-1




12. Gulliver-en bidaiak

Jonathan Swift
Egokitzapena: Martin Jenkins
Irudiak: Chris Riddell

Itsasontzia Liliput uhartean urperatu zaiolarik, bertako biztanle txiki zikoitzak ezagutuko ditu Lemuel Gulliverrek; izan ere, aldameneko herriari gerra deklaratzeko gauza dira, arrautzak hausteko moduz ere ez baitira ados jartzen. Ondorengo bidaietan, Gulliver beste pertsonaia harrigarriekin bizituko da, eta haien bidez gizartearen eta gizakien akatsen satira egingo du, parekorik ez duten umore eta talentuz.

Balioak: adiskidetasuna, konfiantza, sormena, iritzia, aniztasuna, eskuzabaltasuna, zintzotasuna, irudimena, justizia, erantzukizuna, tolerantzia, adorea.

11 urtetik aurrera	Abentura, fantasia eta satira
160 orrialde	ISBN: 978-84-682-1660-7




13. Mikel Strogoff

Jules Verne
Egokitzapena: José María Pérez Zúñiga
Irudiak: Javier Serrano

Mikel Strogoff kapitainak bidaia luze eta arriskutsu bat egin behar du Siberiako estean barna, Irkutskeko gobernariari jakinarazi behar baitio Iván Ogareff traidorea tatarari inbaditzaileekin aliatu dela. Bidean, posta-buruzagia atxilotu eta ezpata gori batekin itsutzen dute. Alabaina, bere kemenaren indarrez, eta Nadia gaztearen laguntzarekin, Strogoffek ihes egitea lortzen du, aurre egiten dio Ogareffi eta tatararren inbasioa geldiarazten du.

Balioak: adiskidetasuna, laguntasuna, konfiantza, jarraikitasuna, iritzia, eskuzabaltasuna, zintzotasuna, justizia, erantzukizuna, solidaritatea, adorea.

11 urtetik aurrera	Abentura-nobela
176 orrialde	ISBN: 978-84-682-1661-4



15. Robotak nire lagunak

Isaac Asimov

Irudiak: David Shannon

Liburu honetako bi kontakizunetan, etorkizuneko gizarteak deskribatzen ditu Asimovek: gizarte horretan robotak gizakien zerbitzari leialak dira, hainbestearino non haien hutsune afektiboak ere osatzen baitituzte. Halaxe gertatzen da Robbie izeneko robotaren ipuinean, zeina egileak inoiz idatzitako ipuinik samurrenetako bat baita, eta baita Sally robotaren kasuan ere, non inteligentzia hornituriko autoek beren nagusia gaizkileen erasoetatik libratzen baitute.

Balioak: adiskidetasuna, konfiantza, sormena, iritzia, zintzotasuna, irudimena, justizia, ingurumena, erantzukizuna, solidaritatea, tolerantzia.

10 urtetik aurrera	Zientzia-fikzioa
96 orrialde	ISBN: 978-84-682-3698-8



16. Ozeko aztia


L. Frank Baum

Egokitzapena: Germán Vives

Irudiak: Robert Ingpen

Dorotea txikiaren eskutik, Ozeko erresuma magikora garamatza Baumek bidaian. Erresuma horretan sorginak maitagarriekin errietan aritzen dira, eta harrigarriena ere gertatzen da. Abentura biziak eta ezin ahaztuzko pertsonaiek, bata bestearen atzetik, gure ametsak errealitate bihurtzeko erakusten digute, ilusioz eta eginahalak eginez borrokatzen bagara.

Balioak: adiskidetasuna, laguntasuna, konfiantza, jarraitutasuna, iritzia, aniztasuna, eskuzabaltasuna, zintzotasuna, irudimena, justizia, solidaritatea, adorea.



9 urtetik aurrera	Fantasia eta abentura
160 orrialde	ISBN: 978-84-682-2775-7

17. Konkorduna eta «Mila eta bat gau» liburuko beste ipuin batzuk

Anonimoa

Irudiak: Michael Foreman

Mila eta bat gau liburuko hamar ipuin hauetan elkarren ondoan daude pasadizo dibertigarriak, irakaspenez beteriko fabulak eta istorio guztiz fantastikoak, hala nola poltsa batean hiri oso bat gordetzen zuen gizona; lau aldiz hil eta, azkenik, berpiztu zen konkorduna; bere zapaten erruz zuen guztia galdu zuen gizon xuhurra, eta "Ireki zaitez, sesamo!" oihuari esker aberastu zen aizkolaria.

Balioak: iritzia, aniztasuna, zintzotasuna, irudimena, justizia, adorea.

10 urtetik aurrera	Abentura, fantasia eta umorea
128 orrialde	ISBN: 978-84-682-2776-4



18. Munstroen kontakizunak


Steven Zorn

Irudiak: John Bradley

Era guztietako munstroak dabilta liburu honetako orrietan barna: herensuge distiratsu bat, Frankenstein doktore itxuragabea, gizotso beldurgarri bat... Horien gorabeherak kontatzen dituzten sei ipuinetan dardara egingo duzu, hunkitu egingo zara, barre egingo duzu, baina batez ere ikasiko duzu munstroak ez direla esaten den bezain gaiztoak. Zeren zain zaude horiek guztiak ezagutzeko?

Balioak: konfiantza, jarraitutasuna, sormena, iritzia, aniztasuna, eskuzabaltasuna, irudimena, erantzukizuna, tolerantzia, adorea.

10 urtetik aurrera	Izua, umorea eta fantasiakoak
104 orrialde	ISBN: 978-84-682-2777-1



BALIO-TAULA

Eltzetxoa bilduma

[illegible]

Tantaia bilduma

1. Ametsen ahotsa eta beste ipuin miragarri batzuk	Ipuin tradizionalak eta fantasiazkoak															
2. Erraldoi berekoia eta beste ipuin batzuk	Ipuin moralak eta fantasiazkoak															
3. Esoporen alegiak	Ipuin moralak eta elezaharrak															
4. Gabon-kanta	Kontakizun morala eta fantasiazkoa															
5. Greziar mitoak	Kontakizun mitologikoak															

BALIO-TAULA		Adiskidetasuna	Laguntasuna	Konfiantza	Jarraikitasuna	Sormena	Iritzia	Aniztasuna	Eskuzabaltasuna	Zintzotasuna	Irudimena	Justizia	Ingurumena	Erantzukizuna	Solidaritatea	Tolerantzia	Adorea
Tantaia bilduma																	
6. Isatsetik tiraka	Elezaharrak eta animalien ipuinak	●		●		●	●	●	●		●			●			●
7. Detektibe-ikaslea Lapurreta garesti bat	Abentura, misterioa eta umore beltza	●	●		●		●			●		●		●			●
8. Fantasmek kontakizunak	Misterioa, izua eta umorea					●	●				●				●		●
9. Oliver Twist	Nobela errealista	●	●	●	●		●		●	●		●		●	●		●
10. Dantzarien misterioa Zilar Izar	Polizia-kontakizunak	●	●	●	●	●	●			●	●	●		●			●
11. Robinson Crusoe	Abentura-nobela	●		●	●	●	●		●	●						●	●
12. Gulliver-en bidaiak	Abentura, fantasia eta gizarte-satirazko nobela	●		●		●	●	●	●	●	●	●		●		●	●
13. Mikel Strogoff	Abentura-nobela	●	●	●	●		●		●	●		●		●	●		●
15. Robotak nire lagunak	Zientzia-fikzioa	●		●		●	●			●	●	●	●	●	●	●	
16. Ozeko aztia	Fantasia eta abentura	●	●	●	●		●	●	●	●	●	●			●		●
17. Konkorduna eta «Mila eta bat gau» liburuko beste ipuin batzuk	Abentura, fantasia eta umorea						●	●		●	●	●					●
18. Munstroek kontakizunak	Izua, umorea eta fantasia			●	●	●	●	●	●		●			●		●	●



**Sartu orain eta sortu
zure irakurketa-plana!**



Jarrai gaitzazu hemen:

